

BIZKAIEREAREN ASTEA (III)

Aurreko urteetan lez aurten be EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k Bizkaierearen Astea eratzen dau, aurten irugarrena.

Illerik egokiena orrilla dala uste izan dogu eta ille one-tan izango da aurten be. Eta ordua zazpi ta erdietan, ordu-bete edo ordu ta lauren inguruan amaitzeko asmoaz. Ber-baldia, geienez iru ordu-lauren izango litzake eta ortik aurrerakoa alkar-izketarako.

Tokia aurten be biotz zabalez eta gogo onez emoten dauskuen Eskolapioai eskatuko dautsegu eta etxe-aldakuntzarako eregintza-lanak egiten diarduela entzun dogu, baiña ba-daukagu ziurtasuna gutzat gela bat aske izango dabela.

Izlariak eta gaiak oneik izango dira: Orrillaren 5, astele-nean Etxebarría'tar Manuel'ek erri-ipuñai buruz; Orrilla-ren 6'an, asteartean, Arostegi'tar Luis Aita karmeldarrak Lauaxeta'ri buruz egin dausku bere ekiñaldia; eguaste-nean, orrillaren 7'an Kerexeta'tar Jaime izango dogu izlari eta bere gaia Eusko Oñetxeak eta abizenen eta onein ikur-dien arazoa; orrillaren 8'an, eguena, Euskerearen irakas-kuntza gai dala, Uriarte'tar Xabier'ek azalduko dauskuz bere jakingarriak eta eritxiak, eta azkenez, barikuan, orri-llaren 9'an Puxana'tar Pedro izango dogu aurten be izlari, Bizkai'ko aditzaren barriak emoteko.

Ikusten danez, izlari bakoitza bere saillean berezitua da eta artu daben gaiari buruz lanak be idatzi dabez. Uste osoaz itxaron geinke ba, berbaldi entzungarriak izango dirala.

BIZKAIEREAREN III ASTEA

EGITARAUA

Orrillaren 5'ean, astelena:

Gaia: **Erri-ipuñak** (Antxiñatik etorriak).

- Edestutea.
- Ipuin oneik batzeko erak eta bideak (metodolojia).
- Ipuñen garrantzia errian.
- Itaun-erantzunak.

Izlaria: Etxebarría'tar Juan Manuel

Orrillaren 6'an, asteartea:

Gaia: **Lauaxeta'ren olerkien gizatasuna.**

- I.— Sarrera.
 - Azken bibliografia Lauaxeta'ri buruz.
 - Euskalerriko eta Europa'ko olerkarien ezagupena Lauaxeta'gan.
 - Bere asmoa olerkiak burutzean eta orrek olerki-ikuspegitik sortzen dauan arazoa.

II.— Lauaxeta'ren olerkien gizatasuna.

- Giza-agerpenak.
- Sentipena.
- Giza-irudia.
- Bereizgarri iraunkorrak.
- Non poesia.

Izlaria: Arostegi'tar Luis aita

Orrillaren 7'an, eguastena:

Gaia: **Eusko-Oñetxeak**

- Abizenen garrantzia Euzkadi'n, nondik artzen diran.
- Zergaitik eta nondik abizenen ikurdiak.
- Ikurdun etxeak zergaitik eta non.
- Ikurdiaren zatiak eta irudiak.
- Euskaldunen abizenak eta ikurdiak mundu zabalean.

Izlaria: Kerexeta'tar Jaime

Orrillaren 8'an, eguena:

Gaia: **Euskerearen irakaskuntza erdi-maillako ikastegietan**

- Elburua, irakaskuntza osoa euskeraz.
- Ikastoletan asierea.
- Erdi-maillan jarraipena.
- Ikastetxe nagusia elburu.
- Erdi-maillako egoera gaur arlo onetan.
- Zelan jokatu bear leiteken.
- Itxaropenak eta zailtzak.

Izlaria: Uriarte'tar Xabier

Orrillaren 9'an, barikua:

Gaia: **Bizkaierazko adltza**

- 1.—Aditza, izkuntzaren ardatza.
- 2.—Bizkaierearen eta Gipuzkoerearen bardintasunak.
 - Iru aberen gaiñean eregi izana: NOR, NORI eta NORK.
 - Adizkiaren osagaiak.
 - Aldien banaketa.
 - Aditz izenaren erabillera.
 - Aditz laguntzailleak.
 - Adizkien egitura.
- 3.—Bizkaierearen eta gipuzkoerearen ezbardintasunak.
- 4.—Aditz igarogatxa.
- 5.—Aditz iragankorra.
- 6.—Gaur bizkaieraz zelan erabilten dan aditza.
- 7.—Erririk erri aurkitzen diran ezbardintasunak.
- 8.—Aditz bakuna, sintetikoa.
- 9.—Ikako jokabidea.

Izlaria: Puxana'tar Pedro

OLAZAR'TAR MARTIN'EK